

JON MALAXETXEBARRIA

biografia

Gernikan jaioa, Ingalaterran eta Espainian garatzen da nagusiki bere orkestra zuzendari-ibilbidea. Ingalaterran Manchester Camerata, Liverpool Mozart Orchestra, Derbyshire Youth Orchestra, Nottingham Youth Orchestra, eta bera zuzendaritza irakasle deneko Leeds College of Music Chamber Orchestra eta Wind Band zuzendu ditu. 2013an Japoneko bira egin zuen Derbyshire County Youth Band bandarekin. Jon Malaxetxebarria Solihull Symphony Orkestraren zuzendari titularra da 2013az geroztik.

Bilboko Orkestra Sinfonikoa zuzendu du orkestraren denboraldian eta baita Arriaga Antzokiko denboraldian ere. Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoa, Orquesta Filarmónica de Málaga, Orquesta Sinfónica de Extremadura, eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Iruñeko Orfeoiarekin batera ere zuzendu ditu. 2016ko irailean Zenarruzako Musika jardunaldiko amaierako kontzertuan, Handelen Mesias obra zuzendu zuen Bilboko Koral Elkarte eta Bizkaiko Orkestra Sinfonikoarekin.

Chicagoko Roosevelt Unibertsitatean Dale Clavengerrekin goi-mailako trompa ikasketak egin ostean, 2010ean Jon Manchesterrera joan zen Royal Northern College of Music kontserbatorioan zuzendaritzako master-ikasketak egitera, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Sailak emandako beka bati esker. Ikasketa hauek bukatzearekin batera, zuzendaritzaren Mortimer Furber saria irabazi zuen eta JuniorRNCM kontserbatorioan irakasteko lanpostua eskaini zioten.

Musika garaikidearen zale amorratua da Jon, eta, besteak beste, Simon Dobsonen tronboi eta orkestrarako kontzertuaren mundu mailako estreinaldia zuzendu zuen (BBC Radio 2k emititu zuen).

www.jonmalax.com